

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak elkartasuna adierazi die Murtziako lurrikaretako biktimei eta erreskate taldeak eskaini dizkio hango autonomia gobernuari

Sanz Lehendakariak dolu eguna iragarri du gaurko, ostegunerako, Foru Erkidegoan

Jueves, 12 de mayo de 2011

Miguel Sanz Sesma Nafarroako Lehendakariak Nafarroako instituzioen eta herritarren doluminak eta elkartasuna bidali dizkie Murtziako lurrikara dela-eta izan diren hildakoei, haien familiei eta kalteak izan dituzten beste milaka laguni. Halaber, Murtziako autonomia gobernuari Foru Erkidegoko segurtasunerako eta

larrialdietarako bitartekoak eta taldeak eskaini dizkio asteazken arratsaldean izan zen lurrikararen eta ondorengo errepliken ondorioz gune kaltetuenetan egin beharreko esku hartzeetan laguntzeko.

Horixe adierazi dio Sanz Lehendakariak Ramón Luis Valcárcel Murtziako Lehendakariari igorri dion gutunean. Gutun horretan, Lorcan gertatu diren lurrikaren ondorio beldurgarriengatik "atsekabe handia" duela adierazi dio eta "katastrofe hori dela eta zauritu diren eta lekuz aldatu behar izan duten guztiei adorea eta itzaropena" igorri die.

Gutuna amaieran zera esanez amaitu du: "Sortu den egoera larria konpontze aldera, zure esanetara naukazu burutzen ari zareten lanetan laguntzeko behar izan ditzakezuen bitarteko eta taldeak Nafarroatik bidaltzeko".

Horrez gain, Sanzek Lehendakariaren foru dekretu bat onetsi du



Banderak hega erdian jarri dituzte Nafarroako Jauregian Murtziako lurrikarak direla eta



Javier Caballero Gobernuak lehen presidenteordea (lehen ilaran, eskuinetik hasita bigarrena) gaur eguerdirako Iruñeako Udalak Murtziako lurrikaretako biktimen alde deitu duen elkarretaratzean izan da

gaur goizean gaurko eguna dolu egun iragartzeko, lurrikaretako biktimei elkartasuna adieraztearren. Gauzak horrela, eraikin ofizialetako banderak hega erdira jaitsi dituzte.